

noaua



Datorren urtera arte



Israel & Grecia

TALDE BIDAIA
Irteera 2019ko irailean
 Lasarte-Oriatik, NOAOAk gidatua

 **NOAOA**
 BIDAIAK

943 37 36 13 info@noaoa.eus noaoa.eus



FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693
Eusko Gudari 35, ORIO



**Usurbilgo sagarra,
 udako freskagarri naturalena**

URDAIRA

Aginaga 943 37 26 91



Albisteak iruditan

Margolarien familia hazten

Orain arte 2-16 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzendua zegoen jailetako pintura lehiaketari kategoria berria erantsi diote aurtengoan; 17 urtetik gorakoena. Antolakuntza pozik da, estreinakoz lehiaketa helduengana zabaltzeko egin duten apustuarekin. Esperientzia errepikatzeakotara 2020ko edizioan.

Epaimahaitik ekainaren 28an txapelketa amaieran aitortu zigutenez, sariketak marrazkiak hautatzen lan zaila izan zuten. Jailetatik zer dugun gustukoan, marrazki bidez horixe islatzera animatzen gintuzten. 17. Pintura Lehiaketako epaimahaiak lanen kalitatea eta parte hartzea goraipatu ditu. Parte hartu zuten artean, sarituak izan ziren lanen egileen zerrenda duzue hemen:

■ 2, 3 eta 4 urtekoen artean:

Jon Dorronsoro.

■ 5 urtekoen artean: Iraide Delgado.

■ 6 urtekoen artean: Martin Otaduy.



Jaietako Pintura Lehiaketan saritutako margolariak, diplomak eta sariak eskuetan.

■ 7 urtekoen artean: Ainhoa Villafafila Roldan.

■ 8 urtekoen artean: Irati Diaz de Ojalora.

■ 9 urtekoen artean: Lilien Li.

■ 10 urtekoen artean: Martina Iribar Sagarna.

■ 11 urtekoen artean: June Altadill.

■ 12 urtekoen artean: Julen Orbegozo Pelaez.

■ 13 urtekoen artean: Maddi Manterola Angulo.

■ 14-16 urte artekoen artean: Araia Soroa Alzugaray.

■ 17 urtetik gorakoaren artean: Sara Sanchez.

Laburrean

1955ean jaiotako kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute bere eguna 1955ean jaiotakoek. "Egun pasa egin-go dugu, Gezaltza-Añanako gatz arana, Nerbioiko ur jauzia eta Urduña ikustatuz. Jakinaren gainean izateko. Izena irailean eman beharko da".

1979an jaiotako kinto bazkaria

"Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula". Garai berekoa bazara eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Datorren astelehenean odol ematea

Bizitzeko ezinbestekoa dugun gure odola besteek beharko dutenez, bueltan da bi hileroko hitzordua. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarrekin deituta, odol ematea uztailaren 8an 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

noa

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaueus // www.noaueus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaueus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Luis Aranalde

Urrezko ezteiak

Duela egun batzuk ospatu nituen apaiz urrezko ezteiak. 50 urte dira Baionako katedral gotiko dotore hartan apaiztu ginela hamabi gazte. Nik berez nirekin batera ordenatu ziren apaizekin ospatu behar nuen data seinalatu hori, baina Baionako bikario nagusiak esan zidanez hamabitik hiru bakarrik gelditzen gara: bat Afrikan dago eta han bukatu nahi du bere bizitza, bestea gaixo erresidentzia batean eta ni. "Ez zegok ezer ospatzekorik", esan zidan. Orduan erabaki nuen Gipuzkoan 1969an ordenatuak izan zirenekin ospatzea.

Ospakizun xumea izan zen: meza eta bazkaria Donostiako seminarioan. Egun batzuk geroago Gazteluko elkartean bildu nuen familia osoa: guk esaten dugun bezala, "espezial" pasa genuen. Opari ederrenetarikoa bi iloba bilobek dantzatu zidaten agurra. Zeharo hunkitu ninduten.

Nire apaiz ibilbideak hiru

esparru izan ditu batez ere:

Erretore: 1995ean estreinatu nintzen parroko bezala. Artean Santo Tomas Lizeoan ari nintzen irakasten eta aldi berean parrokia koskor bat zuzentzeko gai sentitzen nintzen eta Aginaga proposatu zidaten. Baietz esan nien berehala. 2001a arte izan nintzen erretore. Gero Añorga eta Ibaeta zuzendu nituen. Orain Añorgako parroko jarraitzen dut eta Ibaetako kristau elkarteko laguntzaile.

Aginagan sarrera egin nuen, meza ondoren Asisko San Frantzisko elkartera joan ginen eta esan zidan batek: "ondo egin duk hona etortzearekin, gu ez gaituk hara (elizara) joango eta". Ez al da ongietorri kuriosoa? Ez zela etorriko elizara, baina tarteka agertzen zen: lagun hiletetara batez ere eta nire homiliak gustukoak zituen: "ondo aritu haiz", esan zidan behin baino gehiagotan. Apaiz lanetan nire lema izan da Kalkutako Ama Teresarena: "zuregana dato-

rrena etorri denean baino apur bat zoriontsuago joan dadila".

Irakasle: Biarnon hamar urtez jardun nintzen; erlijioa kultura eta gaztelania irakasten nituen. Santo Tomas Lizeoan kultur erlijiosoa eta frantsesa. Bai Frantzian eta bai Donostian bi helburu zituen nire eginkizunak: gazteak kulturaz janztea eta zentzu kritikoa lantzea. Inposatu baino gehiago lagundu egin diet, tresnak proposatu dizkiet beren etorkizunari aurre egiteko gai izan daitezen. Gazteak berak izan behar du heziketaren protagonista. Eskola topaketa gune bat da. Biltzen gara elkar ezagutzeko, maitatzeko eta elkarrekin ibiltzeko. Filosofia horrekin saiatu naiz irakaskuntza lanetan.

Organista: Altsasun humanitateak estudiatzen nituela pianoa eta harmoniuma jotzen ikasteko lezioak proposatu zizkidaten. Gustura esan nien baietz, klaseak kirol orduetan ematen ziren arren. Hamabi urte nituen. Geroztik beti ikasten joan naiz. Hamazazpi

urte dira Joan Mari Uriartek eskatu zidala Gotzain ospakizunetan organoa jotzea katedralean. Inoiz ez diot behar bezala eskertuko egin zidan fabore hori. Espainiako organorik handiena eta ederrenetarikoa daukagu Donostiako katedralean. Organistaren rola oso garrantzitsua da: go-goeta eta otoitz giroa sortzea batez ere. J.S. Bachek esaten zuen konposatzen zuen musika guztia zela "Jainkoa goreseteko eta arimak gozatzeko".

Duela gutxi katedralako eliztar batek esan zidan: "Luis, hoy nos has alegrado el corazón". Horrelako testigantzak animatu egiten zaitu zure betebehari hori hobetzen teknika landuz, errepertorioa zabalduz... "Noiz jubilatuko behar duk?", galdetu zioten nire apaiz lagun zahar bati. "Hilobiratzen nautenean", erantzun zuen. Nik ere zerbitzutxo xume batzuk eskainiz jarraitu nahi nuke ordura arte.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegoza | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

URDAINTZI S.L.

Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Legealdi berrirako ardura banaketa eta ordezkarien izendapenak, udalbatzaren lehen erabakiak

Ekainaren 15ean udalbatza osatu eta udalordezkariek kargua hartu ostean, 2019-23 legealdia abiatzeko urrats erabakigarria eman zuten ekainaren 25ean egindako lau urteotako lehen osoko bilkuran; 2023ra arteko udal antolaketa finkatzea. Le-rootan bildu ditugu udalbatzak hartutako lehen erabakiak.

Udalbatzarraren osoko

bilkurak, azken ostegunetan

Udal gobernu talde berritik orain arte bezala hilero azken asteartean egiten segitzeko agertutako ezintasunagatik, plenoak aurrerantzean hilero azken ostegunetan egitea proposatu zuten. Horretarako ordeza ezinbestekoa da udal arautegia aldatzea eta araudia aldatzea onartu zuen udalbatzak legealdi honetako lehen osoko bilkuran. Orain arte bezala hilean behin deituko ditu alkateak ohiko plenoak, baina aipatu moduan aurrerantzean hilero azken ostegunetan. Aldaketa hau behin behinean onartu da. Orain 30 eguneko erreklamazio epea zabalduko da, behin betiko onartu aurretik. Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, behin betiko onartutzat joko da.



Ekainaren 25ean legealdi berriko lehen osoko bilkura egin zuten.

ALDAKETAK

“Plenoak aurrerantzean hilero azken ostegunetan egitea proposatu zuten”

Hiru udal talde politiko

13 udal ordezkari osatua dago udalbatza; gogoan izan, maiatzaren 26ko udal hauteskundeetako emaitzei esker, EHBilduko 8 ordezkari, EAJ-ren 4 ordezkari eta PSE-ren ordezkari batekin. Aurrekoetan bezala, hiru udal talde politiko eratu dira 2019-23 legealdirako ere:

■ EHBildu udal talde politikoa kideekin: Agurtzane Solaberrieta Mesa (bozeramailea),

Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Aroa Etxeburua Ugartemendia, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

■ Usurbilgo EAJ-PNV udal talde politikoa kideekin: Josune Urkola Larrarte (bozeramailea), Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Pérez Fraisoli.

■ Udal-Talde Sozialista udal talde politikoa kide honekin: Patxi Suárez Pérez (bozeramailea).

Orain arteko batzorde informatzaileak

Aldaketarik ez. Aurreko legealdian bezala, abiatu berri

dugun honetan ere 11 batzorde informatzaile izango ditu Udalak. Izen berari eutsiko diote. Batzorde bakoitza bost udal ordezkari osatuko da. EHBilduk hiru ordezkari izango ditu, ordezkari bana EAJ-k eta PSE-k. Proposamenaren alde agertu ziren EHBildu eta PSE. EAJ abstenitu zen. Udal gobernu taldetik Agurtzane Solaberrieta alkateak nabarmendu zuenez, udal talde politikoa guztien parte hartzea bermatu nahi da batzordeotan: Hiri-gintza, Zerbitzuak, Antolaketak, Ongizatea, Nekazaritza eta Ingurumena, Kultura, euskara eta gaztedia, Kirola, Parekidetasuna eta aniztasuna, Ogasuna, Hezkuntza eta Tokiko Garapena, Pertsonala.

Hiru liberatu: alkatea eta bi alkateordeak

Aurreko legealdietako formula bera errepikatuko du EHBilduk; alkatea eta bi alkateordeak liberatuko ditu. Lanaldi osoz jardungo dute udalean alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak eta izendatu diren bi alkateordeak; Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga. Alkateak zenbait eskumen eskuordetuko ditu; Etxeberria alkateordearen esku utziko du Oga-

suna zuzendu eta kudeatzeko ardura, “kreditu eragiketarik hitzartzea eta faktura zerrendak onartzea” izan ezik, zereginok alkatearen esku geratuko baitira. Larrañagaren esku “zigor-jardunbideari hasiera ematea udalaren eskumeneko edozein arlotan eta instrukzio organoa izendatzea, zigor-jardunbidea ebazteko organo eskuduna alkatea izango delarik”.

Soldaten kopuruak

Kobratuko duten soldata zehazteko irizpidea EHBilduk finkaturikoa eta aurreko legealdietan baliatu izan duten bera izango da. Alegia, liberatuek udal karguetara heldu aurretik zituzten lanpostuetako ordainsari bera izango dute. Proposamenaren alde agertu ziren EHBildu eta PSE. EAJ abstenitu zen. Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL)

finkatuak dituen ordainsarien taula aplikatzearen alde agertu ziren jeltzaleak, alkateordeetako batek alkateak berak baino ordainsari altuagoa kobratzea ulertezintzat jotzearekin batera. Udal gobernu taldetik erantzun zitzaizen esanez EHBilduren irizpidea dela aplikatzea erabaki dutena eta herri batzarraren babes osoa dutela horretarako.

“Lasterketaren helburu nagusia Uxuek duen gaixotasuna ezagutzera ematea da”

Uztailaren 6an egingo da Uxue Trail, Andatzako lasterketa solidarioa. Usurbilgo herritarra da Uxue, lasterketak omenduko duen txikia. 9 urte ditu egun Uxuek eta Pheland-McDermid sindromea du. Gaixotasun arrarotzat hartzen da sindrome hau eta Espainia osoan 115 kasu baino ez dira ezagutzen. Euskadin Uxue da sindrome honekin diagnostikatutako ume bakarra.

Gaixotasun hau duten haurrak laguntzeko lasterketan parte hartzea ez da ezinbesteko baldintza. Lasterketa motza 11km (15 euro) eta 20km-ko lasterketa luzea (20 euro). Lasterka egin nahi ez dutenek aukera daukate dortsal solidarioa erosteko, hau da nahi besteko donazioa egiteko. Gaixotasunaren eta lasterketaren inguruan solastu da Goyo Martin, Uxue txikiaren aita NOAA!rekin.

NOAUA! Gogora ekar dezagun zer den Uxueren gaixotasuna.

Goyo Martin. Pheland-McDermid da gaixotasunaren izena. Gaixotasun hau dutenek 22. kromosomaren zati bat falta dute edo ez dute behar bezala garatu. Horren ondorioz, gen batzuk falta zaizkie eta horien artean Shank3 genea. Horrek determinatzen du gaixotasuna.



Uztailaren 6an egingo da Uxue Trail lasterketa solidarioa Andatza inguruan. Pheland-McDermid sindromearen eta lasterketaren inguruan hitz egin dugu Uxueren aitarekin. Argazkia familiak igorritakoa da.

Gen horren faltak neuronen arteko lotura oztopatzen du eta horren ondorioz sortzen da Pheland-McDermid. Mutazio

bat da. Ume guztiek sintoma antzekoak dituzte: hitz egiteko zailtasunak edo batere hitzik ez egitea, psikomotrizitate ara-

GOYO MARTIN

“Uxuek 3 urte zituela Espainiako pertsona batzuekin elkartu ginen Burgosen eta elkarte bat sortzea erabaki genuen.

Zortzi edo bederatzi baino ez ginen orduan. Sei urte geroago 115 haur ditugu”

zoak, kognizioari lotutakoak... batzuek sintoma gehiago izaten dituzte eta besteek gutxiago. Kasu arraro batzuetan sindrome hau duten umeek hitz ere egiten dute, kasu bakoitza ikusi behar.

Duela bost bat urtera arte Espainiako Estatuan Uxueren kasua baino ez zen ezagutzen Pheland-McDermid gaixotasunarekin. Egun kasu gehiago ba al daude?

Egun 115 haur daude gure elkartean. Uxuek hiru urte zituela Espainiako pertsona batzuekin elkartu ginen Burgosen eta elkarte bat sortzea erabaki genuen. Zortzi edo bederatzi baino ez ginen orduan. Sei urte geroago 115 haur ditugu. Jakin, badakigu haur gehiago ere badaudela gaixotasun honekin estatistikak kontuan hartuta, baina ez daude diagnostikatu-ta.

“Kognizio mailan asko hobetu du, lehen baino zertxobait autonomoagoa da”

NOAUA! Nola dago Uxue gaur egun, 9 urterekin?

Goyo Martin. Uxuek asko hobetu du urte hauetan. Terapia asko egin ditu logopedarekin, fisioterapia... Kognizio mailan

asko hobetu du, lehen baino zertxobait autonomoagoa da. Psikomotrizitatean ere aurrerakuntza nabarmenak egin ditu. Lehen gorpildun aulkian ibiltzen zen eta orain oinez

ibiltzen da eta jolastu ere egiten du. Bere mugak ditu, baina lorpenak egiten ari da.

Konturatzen da dituen mugez? Ez, ez da konturatzen. Bere

munduan bizi da; oso haur zoriontsua da, baina ez da kontziente gertatzen zaionaz. Urtebete edo urteterdiko haur baten antzekoa da, gutxi gorabehera.

“Herri honetako zoro batzuei bururatu zitzaien lasterketa solidarioa antolatzea”

NOAUA! Hilaren 6an Uxue Trail lasterketa solidarioa ospatuko da. Ekimen hau usur-bildarrek sortu dute Uxueri eta gaixotasun bera duten haurrei laguntzeko. Nolako balioa du lasterketak zuentzat?

Goyo Martin. Herri honetako zoro batzuei bururatu zitzaien ekimen hau sortzea. DYAn dabiltzan batzuk, mendiko bizikleta zaleak... ezagunak ditut eta haiek sortu dute hau guztia. Ideia duela pare bat urte sortu zen. Zerbait egin nahi genuen guk ere. Espainian egin dira gaixotasuna ezagutzea emateko ekimenak Madrilen eta hegoaldean, batez ere. Kontua da, Euskal Herrian Uxue bakarrik dagoela. Familia bakarra izanik, zerbait antolatzea zaila zen. Beste leku batzuetan familia dezente elkartu ziren zerbait antolatzeko; zela golf txapelketa, zela paddel txapelketa... denak helburu berdinarekin: gaixotasuna ezagutzea ematea eta ikerketa eta familiei laguntza ematea. Ikerketa serio bat egiteko dirua biltzea oso zaila da, horrelako 50 lasterketarekin ere ez genuke lortuko behar dugun guztia biltzea. 20 mi-



“Probaren egunerako ibilbideak behar bezala egon daitezen, garbiketa eta egokitze lanetan aritu dira gure boluntarioak”, Uxue Trail Facebook orrialdean irakurri dugunez.

GOYO MARTIN

“Gure helburua familiak laguntzea da. Elkarte modura eredu gara Ertameriketan eta Europako hainbat herrialdeetan”

lioioi eurori buruz ari gara. Orduan, gure helburuak familiak laguntzea da. Elkarte modura eredu gara Ertameriketan eta

Europako hainbat herrialdeetan. Horregatik da horren garrantzitsua guretzat horrelako lasterketak antolatzea. Duela bi urte egunen bat zehaztu nahian aritu ginen, baina ez genuen egokirik aurkitu eta aurten larunbatekoa lortu dugu.

Lortutako dirua Pheland-McDermid Fundazioari bidaliko zaio, zuek duela urte batzuk sortutako fundazioari, hain

zuzen. Asmo jakin baterako erabiliko duzue dirua?

Familia berriak sartzen dira Fundazioan eta horiek guk izan ez genuen laguntza jasotzea nahi dugu, analisiak egin behar direnean horiek ordaintzeko dirua izatea... Familia gehiagorengana jotzeko aukera eman nahi diegu, euskarri bat. Zerbait berriaren aurrean aurkitzen direnean nora jo izan dezaten.

“Gure fundazioak bitartekoak jartzen ditu familia guztiek analisiak egiteko aukera izan dezaten”

NOAUA! Zer urrats eman nahi dituzue aurrerantzean?

Goyo Martin. Ikerketa serio bat egin nahiko genuke, baina ez da posible oraingoz, diru gehiegiri buruz ari gara. Lasterketa eta gisa horretako ekimenekin gaixotasuna ezagutzea eman nahi dugu. Baliteke guraso batzuk gal-

duta egotea jakin gabe beren seme edo alabak zer duen eta sintomak ikusita agian lagun diezaiekegu behintzat duda hori sortzen. Euskadin analisi genetikoak eskatzea ez da horren zaila, medikuak zerbait ez-ohikoa ikusiz gero analisiak egiteko eskatuta egiten dituzte. Espainiako puntu askotan

hori ez da posible. Gizarte Segurantzak ez ditu ordaintzen analisi horiek eta beraz, gure fundazioak bitartekoak jartzen ditu familia guztiek analisiak egiteko aukera izan dezaten. Haur batzuk gaizki diagnostikatuta daudela uste dugu, autismoan eragina duen Shank3 genea baita Pheland-McDer-

miden iturri. Pheland-McDermid duten haur batzuk autista ere badira nolabait, baina Uxue adibidez ez. Antz handia duten bi gaixotasun dira, eta horregatik uste dugu diagnostiko okerrak egotea oso posible dela. Orduan analisi genetiko zuzen batekin diagnostiko zuzena eskura daiteke.

Erritmo biziaren hartu zuen plaza batukada feministak

Lau hormen baitan aritu dira azken aldi luzean lentseatzen. Batukada tresna gisa hartuta ahalduz lan betean. Eta jaiota irten dira kalera. Larunbat gauerdian plaza hartu eta emanaldi ikusgarri eta hunkigarria eskaini zuten. Tartean, ezustekorik ere eman zioten lagun bati; azken legealdian parekidetasun eremuko zinegotzi eta bidelagun izan duten Josune Estella Arranz omendu zuten.

Zaparra musika taldeak azken kanta amaitu eta berehala piztu zituzten antortzak, eta entzun ziren lehen burrunba hotsak. Ainara Sarasketak zuzenduriko Usurbilgo batukada feministak frontoi erdira sartu eta plaza hartu zuen. Jende mordoa batu zuen bueltan. Batukadaren erritmora egin zuten, pilotalekutik txosnetarako bidea. Erritmo bizi eta alai. Emanaldi ikusgarria eskainiz.



Josune Estella Arranz Parekidetasun eremuko zinegotzi izandakoa omendu zuten.

“Eskerrik asko eredu eta bidelagun izan zarelako”

Eta txosnetan heldu zen ezustekoa. Jai giroaz gozatzen aritu eta jakinaren gainean ez zen taldearen bidelagun garrantzitsu eta estimu handiko bat omendu nahi izan zuten, azken legealdian, Usurbilgo Udaleko parekidetasun eremuko zinegotzi izan den Josune Estella Arranz.

“... kaleak hartu ditugu eta herria gure egin dugu beste behin. Duela bi urte ekin ge-

nion bideari eta ahalduz, saretu, formatu egin gara. Etsaiak izan baino elkar babesteko hautua egin eta elkarren ahizpak garelako ohartu ginen. Ohartu ginen ere guk hasitako bidea zerbait handiagoaren parte dela. Ez ginela soilik gu eta orain, gure aurretik eta gure alboan borrokan aritu den emakume oro ginela; gure amonak, amak eta erre zuten sorgin oro. Munduak aditu duen emakume aske bakoitzaren garrasia eta horietako bat

bereziki aipatu nahi dugu gaur. Zu Josune, ongi dakigulako emakumeengan eta guregan sinesten duzula, gure eskubideengatik, ongizatearengatik eta gure ahotsa galdu ez dezagun borrokatu duzulako.

Gaur zure lan hori ikusten dugula, eta denen aurrean aitortu nahi dizugu gure lorpenak zureak ere badirela. Usurbil! Jakin ezazue emakume hauek bezalakoak ezinbestekoak direla denok aurrera jarrai dezagun. Eta horregatik gaude gaur hemen, eskertu nahian zure borroka. Eskerrik asko eredu eta bidelagun izan zarelako. Gora borroka feministak!”

Aureskua eskaini, lore sorta eder bat oparitu eta besarkadak eman aurretik, aurrera begira zera adierazi zion batukada feministak Estellari. “Espero dugu ereiten lagundu diguzun hazia loratzean gu zutaz gauden bezain harro egotea zu gutaz”.

10 urte espetxean

Azken ostiraleko euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzerik ez zen izan jaiak tarteko, ekainaren 28an. Horren ordeaz ohi bezala, aipatu eskubideen aldeko kantu-jira eta zikero-janaren ostean ekitaldi berezia Askatasuna plazan. Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangak 10 urte bete dituzte espetxean. Hamarkada honetako hainbat une oroitu ziren, Olatzek eta Patxi Xuarrekin batera jada Usurbilen behar zutela gogoraztearekin batera. Espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak dituzten arren, 600 kilometrotara espetxeraturik dituzte, Valentziako Picassenten.

Sinadura bilketa, irailetik aurrera

“Xua Gurasoekin Etxera” herri



Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangak 10 urte bete berri dituzte espetxean.

ekimena aurkeztu zuten duela bi aste, urtarilean Xuak hiru urte bete ostean bere guraso Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarengandik ez bereizteko. Hainbat ekimen iragarri dituzte; sustatzaileek ohartarazi dutenez, sinadura bilketa ere uda ostean abiaraziko dute. Arropa salmentari ekin diote, jaietan harrera ezinhobea izan

du postuak.

Orain Presoak bizikleta martxa

Uztailaren 19tik 21era Luhuso eta Gernika lotuko dituen Sarek deitutako bizikleta martxa Usurbildik igaroko da hilaren 19an bertan, 16:45ean Donostiatik abiatu eta Zarautzera bidean hain zuzen. Informazio gehiago eta izen ematea: sare.eus

Zubietako Herri Batzarraren eraketa

Azken asteotan eratu dira maiatzaren 26ko hauteskunde emaitzetatik udalak, Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta baita Europako erakundeak ere. Gogoan izan ordea, bozketa egun hartan Zubietako Herri Batzarra berritzea aukera izan zuten zubietarrek.

Aldaketarik ez bada, larunbat eguerdi honetan izango da Herri Batzarra berritu eta kargu hartze ekitaldia Kaxkapen.

Haritz Arrizabalaga eta Jon Arroyo izango dira alkateak

2019-21 urte artean Usurbil aldeko hautagai bozkatuekna izango da alkate, Haritz Arrizabalaga. 2021-23 urte artean Donostia aldekoa, Jon Arroyo.















Iñaki Agirresaroberen argazkiak



Bideo eta irudi ugari topatuko dituzue noaua.eus web orrialdean. Datorren asteko aldizkarian ere, jaietako argazki eta albiste gehiago aterako ditugu.

“Eragile aktiboak zarete”

Jubilatuen egun handia ospatu zuten joan den igandean, Usurbilgo jaietan. Herritar helduenen kolektiboa Atxega jauregian bildu zen festetako bazkaritan. Goraino bete zuten jangela. Giro eta lagun arte ederrean bizitu zuten Udalak eta jubilatutako elkarteek antolatutako hitzordua.

“Oso argazki ederra da Atxegako jangela jendez gainezka ikustea”, adierazi zien Agurtzane Solaberrieta alkateak bazkaltiarrei, urtero hitzordu honetara gonbidatzeagatik eskerrak helaraztearekin batera. Pozgarritzat jo zuen ekitaldi hartan urtero parte hartu ahal izatea, jaiak “ez direlako bakarrik gazteentzat, hemen ere izpiritu gaztea badago, zuek ere bazarete festetako protagonistak”. Festen anto-



“Oso argazki ederra da Atxegako jangela jendez gainezka ikustea”, adierazi zien alkateak bazkaltiarrei.

lakuntzan, Jai Batzordean ere parte hartzen dute eta esker ona agertu zien Solaberrietak. Festez gain, urtean zehar egiten duten lan handia aitortu zien “eta horrek erakusten du zuen kolektiboa, bizi bizi dagoen kolektibo bat dela, eragile aktiboa zaretela eta udal

ordezkariotzako ezinbesteko interlokutorea”.

Orain arte bezala, aurrera begira elkarlanean aritzen segitzeko deia egin zien. “Bada-kizue legealdi honetan proiektu oso garrantzitsuak ditugu esku artean. Nekez aterako ditugu proiektu horiek aurrera

zuen laguntzarik eta elkarrekin lanik egin gabe”.

Edozein kasutan, elkarlanean deia festen ondorenerako uzteko nahia agertu zuen. “Urte osoko neke, arazo eta betebeharrak alboratzeko eta gozatzeko unea da. Ondo pasa eta gora Santixabelak!”.

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

UZTAILAK >>>> 14, 28

ABUZTUAK >>>> 11, 25

IRAILAK >>>>> 8, 22

URRIAK >>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>> 1, 15, 29

Opariak eta barruko landareak

URTINEA
San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Usurbildik Arantzara oinez eta euskaraz

Arantzara bidean abiatu ziren ekainaren 26an Usurbildik, herri hau kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) antolatutako udalerrri euskaldunetako gazteen udaleku ibiltariko partaideak. Martxoan izena eman zuten 14-18 urte arteko 60 gazte inguru guztira, arduradunekin.



14-18 urte arteko 60 bat gazte aritu dira UEMako udalekuetan parte hartzen.

Usurbilgo kultur altxorak ezagutzeko tarteka Usurbilgo Udalak antolatzen duen Harria Hitz bisita gidatuan parte hartuz hasi zuten eguna. Hamaiketako ederra dastatu ostean, taldeko argazkia atera eta Arantzarantz (Nafarroa) abiatu ziren. Bi fase izan zituzten udalekuek. Lehen zatia ibiltaria; lehen egunean Usurbildik Oiartzunera, bigarrenean Oiartzunetik Berara eta hirugarrenean Beratik Arantzarako bidea oinez osatu zuten. Aipatu herri guztiotan geldialdiak egin eta herri bakoitzeko bizitzan murgiltzeko aukera izan zuten, ekimen desberdinetan parte hartzeaz gain.

“Gazteak kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuaren helburua”, Usurbilgo herria kide duen UEMA-ren esanetan. Mankomunitatearen “ildo estrategikoetako bat da udalerrri euskaldunetako herritarrak sentsibilizatzea eta ahalduntzea, euskararen arnaguneen garrantziaz ohar daitezen, hizkuntza ohituretan euskararen aldeko hautua egiteko. Ildo horren baitan, arnaguneei buruzko hezkuntza

UEMA

“Gazteak kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuaren helburua”

proiektua abiarazi zuen UEMA-ko duela hiru urte, soziolinguistika edukiak modu integralen eskoletan txertatu nahian, gazteak kontzientziazteko eta ahalduntzeko. Ikasleen artean hizkuntza ekologiararen diskurtsoa zabaltzea eta arnaguneen garrantzia nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain.

Udalekuok Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren eta aipaturiko herrietako udalen laguntza jaso dute. “Baliabideak jarri dituzte topaketak eduki eta azpiegitura aldetik laguntzeko”.

Udajolas abian

4-12 urte arteko 177 haur eta gaztetxo ari dira parte hartzen, jaiak amaitu eta biharamunean, uztaillaren 3an abiatu dugun Udajolasen. Gurasoei

zuzenduriko hainbat ohar helarazi nahi ditugu lerrootan. Batetik finkatua dagoen ordutegia errespetatzea eskatzen da. Udaleku irekien zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da, 9:30-13:30 artean, irteera egunetan 16:30ak arte luzatuko da Udajolas. Bestelakorik esaten ez den artean, “haurrak frontoian utzi eta jasoko dira”.

Etixerako bidalitako oharrak errespetatu. Hemen egunero eraman beharrekoak: bixera, krema emanda, beharrezkoa izanez gero aldatzeko arropa, hamaiketakoa eta bazkaria irteera egunetan haurraren izena adierazita. Udalekuetan botikaren bat behar izango duenak, guraso baimena idatziz ekarri beharko da. Aldiz ezingo dira ekarri etxeko jostailuak, dirua eta telefono mugikorra. “Ekarriko balituzte, beraien ardurapean geratuko lirateke”. Udajolas uztaillaren 30ean amaitutakoan, udalekuen ebaluazio-ordria pasako zaie gurasoei. Beharrezko kasuetarako soilik baliatu NOAUA!ren 943 360 321 telefono zenbakia edo elkartea@noaueus helbidea.

Aisialdi ekimenak martxan

Gogoan izan, Udajolasez gain, txokoak antolatu dituzte eskola txikietako guraso elkarteek Aginagan eta Zubietan. Ziortza Gazte Elkar- teak berriz kanpamendua Errioxan. Ekaina amaieran izan zen bolondres talde bat muntaketa lanetan Peñalos- cintosen.

Euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzak

Azken ikasturtean euskara ikasten aritu edo aisialdiko begirale zein zuzendari tituluak eskuratzeko ikastaroren bat egiten aritu bazara, Usurbilgo Udalaren diru-laguntza jasotzeko aukera izan dezakezu. Eskabidea, ostiral hau, uztaillaren 5a baino lehen aurkeztu beharko duzu udal erregistroan.

Bi deialdiotara aurkezteko 16 urte izan eta Usurbilen erroldatua egon beharko duzu.

G15 USURBIL
HIGIEZINA | INMOBILIARIA
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

SALEROSKETA & ALOKAIURAK

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

“Laboaren Uztaila ekimena oso berezia egiten zait”

Laboaren Uztaila estre-
natuko du eMe taldeak,
uztailaren 4an, oste-
gunez. Uztailean ostegunero
izango da aukera Mikel Laboa
plazan abeslari eta musika tal-
deen kontzertuak disfrutatze-
ko. Lehen taldea eMe izango
da, Haritz Harreguy soinu tek-
nikari ezaguna bada ere, mu-
sikaren munduan bestelako
urratsak ere eman ditu musika
talde ezberdinetan. Eme taldea
osatu zuen duela pare bat urte
Nora Izagirre moda diseinatzai-
learekin eta Ruben Caballero
musikariarekin batera. Kon-
tzentuaren nondik norakoez ari-
tu gara Harreguyrekin.

NOAUA! Laboaren Uztailaren baitan kontzertua eskainiko du eMek. Nola izan da parte hartzearen proposamena?

Haritz Harreguy. Joan den ur-
tean ere luzatu ziguten propo-
samena, baina ezin genuen jo.
Jada ez dut gogoan oso ongi
zergatik izan zen, baina ezin
genuen. Urtero jaisten naiz
kontzertuak ikustera, sortzen
den giroa oso-oso polita baita.
Aurten ere deitu digute jotze-
ko eta baiezkua eman genuen
pentsatu gabe.

**Musikari handia izan zen La-
boa eta letra asko eman zituen
Joxean Artzek, zure osaba ere
badenak, zuen kantuetan ere
garrantzia berezi duena.**

Bai tira, hori jada DNAn dara-
magu. Osabaren letrak txiki-
tati izan dira gure bizitzaren
parte. Hala ere, niretzat ga-
rrrantzia gehiena duena da nola



Ostegun honetan Mikel Laboa plazan arituko dira, “Laboaren uztaila” zikloaren baitan. Irudia: Ion Markel Saez de Urabain.

HARITZ HARREGUY

**“Urtero jaisten naiz
‘Laboaren Uztaila’ zikloko
kontzertuak ikustera,
sortzen den giroa oso-oso
polita baita. Aurten ere
deitu digute jotzeko eta
baiezkua eman genuen
pentsatu gabe”**

antolatuta dagoen, zer-nolako
maitasunarekin antolatzen du-
ten eta nolako gogoak jartzen
dituzten. Osaba edo Mikel La-
boaren kontuagatik baino eki-
menagatik beragatik egiten zait
berezia.

**Mikel Laboari eskainitako zi-
kloa denez, Mikelen abestirik
joko duzue? Edo betiko erre-**

pertorioa izango da?

Gure betiko kantuak joko ditu-
gu.

**Kontzertu batzuk eskaini ditu-
zue 2017an diskoa atera zenu-
tenetik. Zer eman dute?**

Maila pertsonalean beste arlo
batzuetan ezagutzeko aukera
eman digu Nora eta bioi bikote
garen aldetik. Talde ikuspun-
tutik, kontziente izanda beste
lan batzuetan ere bagabiltza-
la, zer-nolako martxa jarrai
dezakegun argitzeko aukera
eman digu. Kantuak egiten ja-
rraitzen dugu eta kontzerturen
bat ateratzen bada, horri ere
helden diogu lasai-lasai. Ezin
dugu astebururo kontzertuak
ematera konprometitu, urrutira
joaten eta kontzertuek dakar-
ten horri guztiari helden.

**Norantz doa eMe? Zeintzuk
izango dira hurrengo urra-
tsak?**

Kantuak grabatzen jarraituko
dugu lasai-lasai eta gero bi-
deak berak esango digu. Ez
daukagu ezer planifikatuta,
momentuan momentukoa egi-
ten dugu. Gutako inor ez da
kantu sortzailea edo horiei
forma ematen adituak eta or-
duan beste modu batera plan-
teatu dugu dena.

Bigarren diskorik izango al da?

Ez dugu ezezkorik esaten.
Kantuak egiten gabiltza eta
beste diskoren batean bilduko
ditugu, bai. Udazkenerako
zerbait grabatzeari buruz hitz
egin genuen, pare bat abesti
berri baditugu, baina horretan
jarri behar.



Jaietan ere izerditan blai

Etxekoak nagusitu ziren ostegun arratsaldean frontoian ospatu ziren pala txapelketen finaletan; bai pala egokituan, emakumezkoen eta gizonezkoen lehiako azken neurketetan. Giro ederra eta jaialdi ikusgarriaren lekuko izan ginen.

Gainerakook bezala, giro sargoria izan zuten bidelagun pala jokalariek. Halere erakustaldi bikain eta ikusgarria eskaini zuten frontoian. Hemen dituzue emaitzak:

Pala Txapelketa

Pala egokitua

Hilario-Beñat 22

Joseba-Jesus 14

Emakumezkoen finala

Ekiñe Balerdi-Miriam Arrillaga 25

Garazi Eizmendi-Nahia Eizmendi 21



Giro ederra egon zen pala txapelketako finaletan.

Gizonezkoen finala

Xabier Errasti-Haritz Urdanpilleta 25

Bikutze-Aizpurua 17

Errifa zozketa

Adi, pala txapelketen finaletan errifa zozketa egin zuen Pagazpe Elkartek. 2.892 izan

da zenbaki saritua. Errifa honen jabeari urdaiazpiko eder bat tokatu zaio. Bestalde, duela bi aste Alkartasuna Kooperatibako produktudun otar bat zozketatu zuen Pagazpek. 1.455 izan zen zenbaki saritua. Eta errifa zenbaki honen jabea; Arantxa Otaegi.

Toka eta igel txapelketak

Tradizio luzea dute Gure Pakea Elkartek jaietan antolatu ohi dituen igel eta toka txapelketek. Uztailaren lehenean ospatu dira aurten-go edizioak, biak Artzabalgo zelai ederrean. Hemen dituzue txapeldunak:



Toka txapelketa:

1-Antonio Guadix.

2-Guillermo Tapia.



Igel jokoa:

1-Antonio Guadix.

2-Gurutze Gorriti.

Aizkora lehiaketa ikusgarria

Ekainaren 30ean Dema plazan jokatu zen Gipuzkoako 2. mailako Aizkolari Txapelketako final handian lehia ikusgarria eskaini ziguten hitzorduan parte hartu zuten sei aizkolariek. Hemen dituzue emaitzak:

1- Jexux Mari Mujika Elola (42 urte, Ibarra) 15 minutu 15 segundo.

2- Aratz Mugertza Mendizabal (30 urte, Mutriku) 15 minutu 56 segundo.

3- Luis Mari Txapartegi Gurutxaga (Zestoa). 16 minutu



Jexux Mari Mujika Elola gailendu zen 2. Mailako Aizkolari Txapelketan.

39 segundo.

4- Jokin Alkizalete Urkiola (29 urte, Asteasu) 17 minutu 30 segundo.

5- Julen Aranberri Ocaña (29

urte, Zumarraga) 19 minutu 26 segundo.

6- Suharri Rodriguez Salaberria (22 urte, Hernani) 21 minutu 8 segundo.

Uxue Traileko izen ematea ixtear da

Aste hasierarako 270 lagunetik gora ziren izena emanda larunbat honetan bertan ospatuko den Uxue Trail, Usurbilgo lehen mendi lasterketarako. Inskripzio epea ostiral gaueko 22:00etan itxiko dute, kronoak.com atarian. Bi ibilbide izango dira aukeran; 20 edo 11 kilometrokoa, 20 eta 15 euroren truke hurrenez hurren. Uxue Trail larunbatean goizeko 9:00etan abiatuko da frontoitik.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etzeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berriua berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Asteburuetarako zerbitzari bat behar dugu Barazar Ostatuan (Zubietan). 943 363 358

Usurbilgo neska baten bila gabilta orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase parti-



Zorionak Lide!

Uztailaren 6an 7 urte! Muxu handi bat, aita, ama, Egoi, aiton-amonen eta izebaren partetik.



Zorionak Ekain!

Uztailaren 1ean 9 urte bete zenituen. Muxu handi bat familiaren partez.

Heriotzak

Manuel Fernandez Pazo
92 urterekin hil zen ekainaren 25ean Usurbilen



www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA
PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA
TELEFONO BERRIA!

EGIN ZURE ESKAERAK
WHASTAPP-ETIKI!



kularrak emateko. 608201745

Txiriboga taberna asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzaileak behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesional-tasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaileak behar dira Aratz erretegi. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrek, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan la-

nean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan

egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo

arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, inter-

na edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

BESTELAKOAK

DBH 3ko, 2. eskuko liburuak erosi-ko nituzke. Tel. 943 246 115

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrek jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ari- ketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 Izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Udarregi Ikastolan klase partikularrek emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 04	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 05	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 06	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 07	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astelehena 08	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte	
Asteartea 09	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 10	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

Uztailak 04 - Uztailak 14

Osteguna 11	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 13	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 14	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

04 osteguna

■ **Laboaren Uztaila: eMe kontzertuan.**
22:00etan Mikel Laboa plazan.

06 larunbata

■ **Uxue Trail, Usurbilgo Lehen Mendi Lasterketa solidarioa.** Abiatzeko hitzordua: 9:00etan, Usurbilgo frontoitik. Izen ematea: kronoak.com atarian, uztailearen 5eko gaueko 22:00ak arte.

08 astelehena

■ **Odol ematea.** 18:00-20:30, anbulatorioan.

Uztailearen 13an, Harria Hitz bisita gidatua osatzeko aukera

U surbilek euskal kultura garai-kidearen susperraldian jokatu-tako papera ezagutaraztea du helburu *Harria Hitz* ibilbideak. Herrian ditugun artelanak baliatzen dira horretarako.

Uztailak 13 larunbata

- 10:00 Irteera frontoitik.
- 10:05 *Harria Hitz* bisita gidatua herrigunean.
- 11:15 TXTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita.
- 12:35 Zumeta Arte Estudiora bisita.
- 16:00 Familientzat serigrafia tailerra (6 urtetik aurrerako haurrentzat) Zumeta Arte Estudioan.
- Tailerrerako materiala: Kotoizko kamiseta argia.



Bisita doakoa da baina aldeztu aurretik eman behar da izena.

- Hizkuntza: Azalpenak euskaraz emango dira.
- Izen-ematea: Bisita doakoa izango da. Aldeztu aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez goizeko bisitarako/ 20 lagun serigrafia tailerrerako).
- Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 / info@kultour.pro

Ikastaro ugari KzGunean

Uztailean goizez zabalduko dute KzGunea, 9:00-13:00 artean. Hemen datozen ikastaroen berri:

- Uztailak 3-16. 9:00-11:00: "Ofimatika tresnak-LibreOffice".
- Uztailak 8-16, 11:00-13:00: "Smartphoneak eta tabletak. Zure An-

droid gailua erabiltzen ikasi".

- Uztailak 17-31, 9:00-11:00: "Kudeatu zaitez Google aplikazioekin".

Informazio gehiago:

tutor.usurbil@kzgunea.net
943 023 684

Datozenak

Uztailearen 10ean

Euskaraldiko bilera

2020ko edizioa prestatzeko biltzeko deialdia finkatu du Euskaraldia Usurbilen bideratuko duen herritar taldeak. Oraingoan, uztailearen 10erako arratsaldeko 14:00etan Potxoenean.

'Laboaren Uztailean', Satelitik-en kontzertua

Dama eta Borrokan taldeetako musikariak daude egitasmo honen atzean. "Musika akustikoa, akordeoia eta kontrabaxua nagusi dira", musikazuzenean.com orrialdean irakurri dugunez.

Uztailak 11 osteguna

- 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Sagarrondotik Sagardora ikastaroan, Josu Osa adituaren txanda

Uztailearen 13rako iragarri du Alkartasuna Kooperatibak otsailaz geroztik abian den ikastaro praktikoko hurrengo saioa; "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa", Josu Osaren eskutik. Izen ematea eta informazio gehiagorako: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com / alkartasuna.eus

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182



Zubiaurrenea 8
943 370 008

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa


943 30 29 20

www.sukia.com



USURBIL HOMES

Ikuspegi onenak dituen ingurune
natural batean bizi



**Terraza
zabalak**



**Sukalde
hornituak**



**Pack
Domotikoa
eskuragarri**

Bisita gaitzazu Lasarten: **Hipodromo Etorbidea, 10**

• **900 11 00 22** •
neinorhomes.com



Edertu zaitez!

INDIBA

DEEP BEAUTY

PROLONG BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

• ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
• AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULAREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBETUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

www.enarestetika.com

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROSTIMULAZIOA PRESOTERAPIA

Munalurra 2, USURBIL 943 57 16 80



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

**UDABERRI BEGIRA
JARRI ZURE AZALA PREST**

- AURPEGI GARBIKETA
- GORPUTZ GARBIKETA
- PRESOTERAPIA
- PEDIKURA • MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO • DEPILAZIOAK

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egverditan irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



Elxpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA
Eskola adinerako berezia**

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagaririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua

**GOLDWELL
ELUMEN**

mistoa

Zorlen
aurkako lozio
ORGANIKOA
KUNDA

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951